

Haur eta gaztetxo irakurleak saritu ditu Ermuko udal bibliotekak

Erredakzioa. Donostia

Ermuko udal bibliotekak herri horretako 125 haur eta gaztetxo saritu ditu, askotariko opariekin, denen artean 673 liburu irakurri dituztelako azkeneko hilabeteetan, beren adinerako aholkatutakoak guztiak.

Saritu bakoitzak hiru eta sei liburu artean irakurri ditu, adinaren arabera. Bibliotekako arduradunek gomendatutakoak ziren liburu guztiak, horietako batzuk euskarazkoak eta beste batzuk gaztelaniazkoak.

Haur eta gaztetxo irakurleak sarituz, haurren eta gaztetxoen artean irakurtzeko zaletasuna eta literaturzaletasuna sustatu nahi izan ditu Ermuko udal bibliotekak.